

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MEZKIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2020ko udako ordainagiriak**

Prestatu delarik Mezkiako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2020ko udako zergadunen errolda, jendaurrean jarri da errolda hori hamabost egun balioduneko epeaz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeke eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteke.

Interesa dutenek Mezkiako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteke epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko azaroaren 30ean hasi eta 2020ko abenduaren 30ean bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Helbideratutako ordainagiriak 2020ko abenduaren 30ean kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Mezkiako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Mezkiako, 2020ko urriaren 26a

*Lehendakaria*

*JUAN CARLOS RUIZ DE MENDOZA*